

SARRIKO

Ekonomia eta Enpresa Fakultatea

Facultad de Economía y Empresa



NAZIOARTEKO
BIKAIN TASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL



FAKULTATEKO DEKANO TALDEA

Javier García Enríquez
Dekanoa

**Ana María Ferrero
Rodríguez**
Fakultateko Idazkaria

DEKANOAREN TALDEA (EGOITZA)

Javier Corral Lage
Kalitateko, Ikasketa
Berrikuntzako eta
Ekintzailetzako Dekanordea

Jon Charterina Abando
Nazioarteko Harremanetako eta
Mugikortasuneko Dekanordea

Jorge Gutiérrez Goiria
Graduondoko eta Etengabeko
Prestakuntzako Dekanordea

**Juan Ignacio Modroño
Herrán**
Irakaskuntza Plangintzako
Dekanordea

Julián Pando García
Enpresarekiko Harremanetarako
eta Enplegarritasunerako
Dekanordea

Amagoia Sagasta Elorza
Akademi Antolakuntzako
Dekanordea

Unai Tamayo Orbegozo
Euskara eta Ikasleen
Dekanordea

Eva Velasco Balmaseda
Politika Instituzionaletako
Dekanordea



Aurkibidea

2023-2024 promozioko graduazioa	4
Jarduerak	5
Jardunaldiak, Kongresuak eta Mintegiak	6
Elkarlana Ekonomistakekin	14
Enpresekiko Harremanak	15
1970-1975eko XVI. Promozioaren bisita	18
Sariak, Aitortzak eta Harrerak	19

“Eskerrak dekanotza taldeko kide izan direnei eta desioetatik ekintzetarako pausoa ematea posible egin duten guztiei hedatu nahiko nizkieke. Irteera are errazagoa izan da ordezkapen prozesua dela eta. Jarraitutasuna eta etorkizuna uztartzeko bokazioarekin egin da, egonkortasuna bilatuz, baina baita belaunaldi aldaketa argiaren alde eginez ere”.



**Javier García Enríquez
eta Jon Barrutia Güenaga**

2025a Unibertsitatearen eta, oro har, Fakultatearen eta, bereziki, Sarrikoren egituraren aldaketa garaia izan da. Hala, administrazio arloan, TEKAZELEko lanpostuetan aldaketak eta berritzeak egin dira, eta zuzendaritza organoetan, berriz, aldaketa nabarmenak izan dira, bai Unibertsitateko errektoretzan, bai Fakultateko zuzendaritzan. Urtarrilean hartu zuen kargua errektore berriak, eta azaroan dekanatu berriak. Gainera, aipatu beharrekoa da Fakultate Batzorde berria eta Egoitzako Batzorde berria aukeratu zirela.

Ikuspegi ekonomiko eta sozialetik begiratuta, gertatzen ari diren aldaketek Fakultateko kideengan isla izan dute. Alde horretatik, irakaskuntza eskaintza teknologiararen eta ezagutzaren eskakizun berrietara egokitzeko tentsioak bere horretan jarraitzen du. Hain zuzen ere, komeni da gogoeta egitea AAren eragin orokorrari buruz eta, bereziki, ikasleen ebaluazio prozesuei buruz; izan ere, kolektibo horretan, neurri batean, AA iruzurrez erabiltzearen kultura ari da ezartzen.

Alderdi positiboari dagokionez, azpimarratu behar da, Ikastegi gisa, ikasle berrientzako lehentasunen artean gaudela oraindik ere. Alderdi hori agerian geratzen da matrikulak nola eta noiz egiten diren erakusten duen datuan; izan ere, gehien-gehienak lehen deialdian egiten dira.

Mikrokredentzialak Fakultatearen bizitza osoko prestakuntza proposamenaren parte dira dagoeneko. Praktikan, Ikastegian sortzen den ezagutza potentziala transferitzeko eta hedatzeko aukera ematen dute, eta, beraz, formula hedatzen jarraitu behar da.

Berriro ere zuzendaritzan egindako aldaketara itzulita, irten garenon izenean, Ikastegi hain sendo eta jakintzan eta pertsonengan aberatsa den honetako dekanatu lana egitea ohorea izan dela gehitu nahiko nuke. Alde horretatik, kolektibo guztiei eskerrak ematea baino ez zait geratzen, bi agintaldi jarraian normaltasunez bete ahal izan direlako. Bi agintaldi horietan oso presente egon dira ikastegien bat-egitea eta Covidaren ustekabeko “erasoaldia”. Eskerrak dekanotza taldeko kide izan direnei eta desioetatik ekintzetarako pausoa ematea posible egin duten guztiei hedatu nahiko nizkieke. Irteera are errazagoa izan da ordezkapen prozesua dela eta. Jarraitutasuna eta etorkizuna uztartzeko bokazioarekin egin da, egonkortasuna bilatuz, baina baita belaunaldi aldaketa argiaren alde eginez ere.

Sartu direnen aldetik, jasotako konfiantzagatik esker ona, ilusioa eta energia dira nagusi. Eskerrak eman nahi dizkiet, halaber, proiektu honetan jarraitzea onartu duten edo sartu berri diren taldekideei, lankidetzarako eta laguntzarako duten borondateagatik.

Mehatxuz eta aukeraz betetako etorkizuna dugu aurrean. Mehatxuak minimizatzea eta aukerak ahalik eta gehien aprobetxatzea espero dugu. Gainera, ez dezagun inoiz ahaztu Sarriko eta Fakultatea, oro har, gizarteari zerbitzua emateko bokaziotik ezagutza aurreratua sortzeko eta transmititzeko erreferenteak direla.

2023-2024 promozioko graduazioa



Emozioak, harrotasunak eta etorkizunak bat egin zuten Ekonomia eta Enpresa Fakultatean, komunitate akademiko osoarentzat ahaztezina izan zen jardunaldi batean

Cristina Andrés, Jon Barrutia, Joxerramon Bengoetxea, Sara Urionabarrenetxea eta Joseba Barandiaran.



2025eko apirilaren 3an, **2023/2024 ikasturteari** dagokion **65. Promozioaren Graduazio Ekitaldia** egin zen [Ekonomia eta Enpresa Fakultatean](#) (Sarriko). Sinbolismoz betetako arratsaldea izan zen, eta Areto Nagusia ikasleen unibertsitateko bizitzaren etapa erabakigarriaren amaieraren eta bide profesional eta pertsonal berrien hasieraren arteko eszenatoki bihurtu zen.

Ikasleak, senideak, irakasleak eta Fakultateko langileak elkartu ziren emozioa, harrotasuna eta urte askoan elkarrekin egindako ahalegina oinarri izan zituen unea partekatzeke. Begirada konplizeek, txalo zaparrada luzeek eta irribarre zintzoek hura bizitzeko aukera izan zutenen memorian geratuko den egunaren intentsitatea islatu zuten.

Zeremoniak balioa eman zion Fakultatean zehar akademikoki eta pertsonalki hazi den promozioaren lan etengabeari, dedikazioari eta talentuari. Giroan agerian geratu ziren komunitateko kide izatearen sentimendu indartsua eta ikasleen eta prestakuntzan zehar ondoan izandako komunitate akademikoaren arteko harreman estua.

Ekitaldiari hasiera emateko, agintari akademikoek hartu zuten hitza: **Jon Barrutiak**, Ekonomia eta Enpresa Fakultateko dekanok; **Joxerramon Bengoetxeak**, EHUko errektoreak; **Sara Urionabarrenetxeak**, Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate Antolamendu eta Plangintzaren zuzendariak; eta **Cristina**

Andrések, Colegio Vasco de Economistas elkargoko presidentek. Haien hitzaldietan, belaunaldi honek erronkaz beteriko testuinguru sozial eta ekonomiko honetan duen rola azpimarratu zuten, eta egresatu berriak erronka horiei konpromisoa, arduraz eta espiritu kritikoz aurre egitera animatu zituzten.

Ikasleen ahotsak ere leku nabarmena izan zuen **Egoitz Iglesiasi**, aparteko saria eta espediente onenaren saria jaso dituenari, esker. Bere hitzaldian, esker oneko hitzak adierazi zizkien senideei, lagunei eta irakasleei, prestakuntzako urteetan zehar jasotako babes aitor-tuz. Bereziki inspiratzaileak izan ziren **Joseba Barandiaran** promozioaren babesleak eskainitako hitzak. Barandiaran Ekonomian lizentziatu zen EHU-n, eta graduondokoa egin zuen Moneta eta Finantza Ikasketen Zentroan (CEMFI, Espainiako Bankuaren Fundazioa). Gaur egun, LABORAL Kutxako Finantza Plangintza eta Jasangarritasun saileko zuzendaria da.

Une gogoangarriena **diploma banaketarekin** iritsi zen. Emozioz beteriko unea izan zen, ibilbide akademiko biziaren amaiera eta bizitzako etapa berri baten irekiera sinbolizatzen dituen. Ekitaldia amaitzeko, **EHUko Abesbatzak** amaiera bikaina eman zion oso hunkigarria izan zen ekitaldiari.

Hala, Ekonomia eta Enpresa Fakultateak arrastoa utzi duen eta etorkizun profesionalean arrakasta opa dion promozioari agur esan zion. Zorionak!

Sarriko, Zero Hondakin



Sarriko Zero Hondakin / Sarriko Cero Residuos



Noche de los Investigadores (2025)

Jasangarritasunarekiko konpromisoak gora egiten jarraitzen du Ekonomia eta Enpresa Fakultatean, **Lidia García Zambrano** eta **Maite Ruiz Roqueñi** irakasleek gidatzen duten **"Sarriko, Zero Hondakin"** proiektuari esker. Irakasleez gain, ingurumenarekiko begirunetsuagoa den unibertsitate ingurunea lortzeko aldaketarekin konprometitutako 15 ikaslek osatzen dute taldea.

Proiektuak **hiru urte baino gehiagoko ibilbidea** du, eta helburu hauek ditu: ikasleei jasangarritasun arloko konpetentziak ematea eta unibertsitate komunitatean **aldaketaren eragile aktibo** gisa duten zeregina sustatzea. Aurrera eramandako azken ekimenen artean, birziklatze prozesua hobetzeko **proiektu pilotua ezartzea** nabarmentzen da. Proiektu horrek **ingurumen sentsibilizaziorako mezu berriak eta paperontziak modu estrategikoan birkokatzea** jasotzen ditu, Fakultateko hondakinen bereizketari optimizatzen.

Taldeak, gainera, **La Noche de los Investigadores** ekimenean hartu zuen parte eta interes handiko bi stand aurkeztu zituen bertan: **"Sarriko, Zero Hondakin"** eta **"Green edo Greenwashing? Marketin arduratsua"**. Espazio horien bidez, publikoa jasangarritasunaren eta kontsumo kontzientearen inguruan gogoeta egitera gonbidatu zuten. **Lidia García, Amaia Jone Betzuen eta Maite Ruizek** zuzendu zuten egitasmoa.

Horrelako proiektuekin, Fakultateak **Garapen Jasangarriko Helburuekin** duen konpromisoa berretsi du eta campus berdeago, kontzienteago eta arduratsuago baterantz aurrera egin du.

Lidia García

Ekonomia elektrifikatzeko lehiakortasun handiagoa



Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Areto Nagusian "Acuerdo industrial limpio: Infraestructuras eléctricas para soportar el crecimiento industrial" mahai ingurua egin zuten urrian, **Analisi Ekonomikoak Sailak** eta **Fundación Alternativas** fundazioak antolatuta.

Saioari hasiera Jon Barrutia dekanok eman zion, eta hark azpimarratu zuenez, energia elektrikoaren eskaintza "funtsezkoa da, batez ere eskaria hazi egingo delako, eta eskaintza horrek adimen-duna izan eta metaketaren erronkei eta harremanaren dinamismoari erantzun behar die". Bestalde, Fundación Alternativas fundazioko Jasangarritasuneko zuzendariak, **José Luis de la Cruzek**, ohartarazi zuenez, Europa kontinentea "munduko batez besteko abiaduraren bikoitzean berotzen ari da, eta muturreko fenomeno klimatikoaren kostua 730.000 milioi eurokoa izan da 1980tik EBrentzat, eta Espainiaren kasuan 95.000 milioi izan dira".

Mahai ingurua **Maria Jose Gutierrez** Analisi Ekonomikoa Saileko katedradunak moderatu zuen, eta bertan parte hartu zuten **Mikel Amundarain** Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiak, **Javier Arriola** I-DEren Ipar Eskualdeko zuzendariak, **Alejandro Labanda** Alianza España Verde y Conectadako bozeramaileak eta **Cristina Pizarro-Irizar** Analisi Ekonomikoa Saileko irakasle titularrak.

Hiru izan dira jardunaldiaren ondorio nagusiak:

- Kapitala erakarri behar dugu inbertsioak egiteko, inbertsio handiak baitira, eta, beraz, erregulatzailerak ingurunearekin behar bezain lehiakorra den esparrua finkatu behar du.
- Oso une garrantzitsua bizi dugu eta gero eta ezegonkorragoa den ingurune geopolitiko eta nazioarteko ingurune honetan, aukeraren palanka aprobetxatu beharra dugu.

- Sareetan inbertitzeak prezioak jaiste eta energia berriztagarrietan oinarritutako baliabide naturalak hobeto aprobetxatzea ekarriko du.

Eztabaida osoa hemen ikusgai:

<https://www.youtube.com/live/Kn3u0ZxWydE>

*Analisi Ekonomikoa
Saila (ANEKO)*



Multiplier Event E4TLI proiektua



Ekainaren 9, 10 eta 11n, Bizkaia Aretoan, **Erasmus+** ES01-KA220-HED-000087144 *"Education for Technological Literacy and Inclusion"* Europako proiektuaren Multiplier Event ekimena (2022an hasitakoa) egin zen.

Proiektu horretako ikertzaile nagusia Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Politika Publikoak eta Historia Ekonomikoa Saileko **Beatriz Plaza** irakaslea izan

da, eta honako irakasle hauek ere hartu dute parte: Politika Publikoak eta Ekonomiaren Historia Saileko **Marisol Esteban**, Enpresen Antolaketa Saileko **Ibon Aranburu**, Finantza Ekonomia II Saileko **María Santos** eta **Noemí Peña**; eta Politika Publikoak eta Historia Ekonomikoa Saileko **Patricia Abelairas**. Era berean, erakunde hauetako kideek ere hartu dute parte: Instituto Politecnico do Porto, Nafarroako Uni-

bertsitatea-School of Architecture, Estonian Academy of Music and Theatre, Tajik State University of Commerce eta Indiako MBM Associates Planning and Sustaining.

Informazio gehiagorako:

<https://e4tli7.com>

Patricia Abelairas

Espainiako Bankuaren jardunaldia Ekonomia eta Enpresa Fakultatean



Espainiako Bankuaren jardunaldiak ikuspegi integrala eskaini zuen, eta proiektzio makroekonomikoak, datuetarako sarbide aurreratua, ikerketan ebidentzia berriak eta etorkizuneko belaunaldientzako aukera profesionalak konbinatu zituen.

Ekainaren 11n, asteazkenean, Ekonomia eta Enpresa Fakultatean jardunaldi bat egin zuten eta, bertan, **Espainiako Bankuaren Zuzendaritza Nagusiko** ikertzaileek beren lana aurkeztu zuten erakundearen dibulgazio programaren barruan. Zuzendaritza horrek azterlan ekonomiko eta finantzarioak egiten ditu Estatuan eta nazioartean, funtsezko txostenak prestatzen ditu, hala nola **Hiruhileko Txostena** eta **Urteko Txostena**, eta koiuntura ekonomikoari, moneta politikari eta proiektzio makroekonomikoei buruzko analisiak egiten ditu.

Lau bloke nagusi izan zituen jardunaldiak:

Lehen blokean, Carlos Thomas Finantza Egonkortasuneko, Erregulazioeko eta Ebazpeneko zuzendari nagusi ondokoak **“Espainiaren proiektzio makroekonomikoak (2025-2027)”** txostena aur-

keztu zuen. Horrekin lotuta, Espainiako ekonomiak nazioartean eta eurogunean berriki izan duen bilakaera aztertu zuen, baita datozen urteetarako aurreikuspenak ere. Hazkundera barne eskariaren sendotasunari esker mantentzen dela nabarmendu zuen, nahiz eta kanpo sektoreak BPGari egiten dion ekarpena txikiagoa izan. Estatu Batuetako muga zergen neurriek izan dezaketen eragina aipatu zuen, baita defentsarako gastua handitzearen eragin mugatua ere, kanpo erosketetikiko menpekotasuna dela eta. Inflazio orokorra neurritzakoa izan da, energiaren eta elikagaien prezioen jaitsieragatik, azpiko inflazioak handia izaten jarraitzen duen arren. Lan merkatuan, enpleguaren sorkuntzak aurrera jarraitzen du, nahiz eta desazelerazio zantzuak dauden. Arriskuen artean tentsio geopolitikoak eta merkataritza oztipoen eraginak daude. Proiektzioen arabera, BPGak neurrizko hazkundera izango du hurrengo hiruhilekoetan, eta kontsumo pribatua zertxobait suspertu eta inbertsio txikiagoa egingo da.

Jardunaldiaren bigarren atala **BELab Espainiako Bankuaren Datu Laborategiari** eskaini zitzaion. 2019an sortua, gune horrek aukera ematen die ikertzaileei kalitate handiko mikrodatu ekonomiko eta finantzarioak eskuratzeko ingurune seguruan, konfidentziaz berme zorrotzekin. Saioan zehar, eskuragarri dauden datu multzoak, plataformak eskaintzen dituen zerbitzuak eta sarbide modalitateak aurkeztu ziren, eta ikerketa ekonomikorako duten garrantzia nabarmendu zen.

Aitor La Cuesta izan zen **hirugarren blokearen** arduraduna, eta bi ikerketa artikuluren metodologia eta emaitzak aurkeztu zituen: bata, hezkuntza arloko soldata errendimenduei buruzkoa, eta bestea trantsizio energetikoaren tokiko eraginari buruzkoa. Trantsizio energetikoak enplegu aukerak sortzen dituela nabarmendu zen, baina baita landatar eremuetarako arriskuak ere, sektore eta enpresen arabera eragin desberdinekin, eta horrek politika espezifikoak eskatzen ditu. Era berean, prestakuntza maila handiagoa izatea lan sarrera handiagoekin lotzen da, eta desberdintasun nabarmenak daude herrialdeen arteko hezkuntza arloko errendimenduetan; horrek testuinguru ekonomiko eta sozialak hezkuntzaren errentagarritasunean duen eragina islatzen du.

Azkenik, **laugarren blokean**, Espainiako Bankuko aukera profesionalak aztertu ziren, eta hauek nabarmendu ziren: lan kualifikatuko ingurunea, nazioarteko lankidetzak, datu base eskusiboetarako sarbidea eta etengabeko prestakuntzarako aukerak. Gehien eskatzen diren profilen artean, Ekonomia eta Finantzetako ikertzaileak daude, bai eta ikerkuntzan laguntzeko lanpostu teknikoetarako berriki graduatuak ere.

Ana María Ferrero Rodríguez

Justizia Energetikoa Ekonomia eta Enpresa Fakultatean

Justizia energetikoak fiskalitate elektrikoa berritzea eskatzen du, familia zaurgarriak babesteko eta trantsizio energetiko bidezkoago eta jasangarriagorantz aurrera egiteko.



Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Gradu Aretan "Justizia Energetikoa: Baliabideak eta Tresnak" jardunaldia egin zuten urriaren 29an. Ekimena **Análisi Ekonomikoa Sailak eta Kontsumobideak** antolatu zuten.

Ongietorria ematearen arduradunak **Miguel López Crespo** (ConsumES) eta **Jon Barrutia** (Fakultateko dekanoa) izan ziren. Saioa **Mikel González-Eguino** (BC3) ikerlariak ireki zuen, eta egungo fiskalitate energetikoak elektrizitatea nola garestitzen duen eta errenta txikiena duten familiei modu desproporzionatua nola eragiten dien erakutsi zuen. Energia zergak ingurumen irizpideen arabera berritzea proposatu zuen, elektrizitatearen gaineko karga fiskala murrizteko, familia zaurgarriei laguntzeko eta deskarbonizazioa bizkortzeko.

Aurkezpenaren ondoren, **Jorge Sanz** (NERA Consulting), **Cristina Pizarro-Irizar** (Análisi Ekonomikoa Saila) eta **Alberto Martín García** (PwC) sektoreko adituek, **Miguel López Crespo** (ConsumES) moderatzaile zutela, mahai inguruan eztabaida egin zuten. Gai

nagusia **faktura elektrikoa** izan zen (ia % 40ko errekaru fiskalak ditu), bai eta kontsumitzaile zaurgarriak identifikatzeko zailtasunak ere. Horrekin lotuta, Gizarte Zerbitzuen rol aktiboagoa eskatu zuen. Eztabaidan zehar, bonu sozial elektrikoaren eta bonu termikoaren arteko inkoherentziak adierazi ziren, eta babes eraginkorragoa eskaintzeko alternatibak planteatu ziren, hala nola, txeke energetikoa edo PFEZeko kenkariak. Sektore elektrikoan telemarketinarekin lotutako iruzurraz ere ohartarazi zuten, eta hura debekatzea edo kontrol handiagoa izatea eskatu.

Bigarren mahai inguruan, **kontsumo zaurgarriaren babesa** ardatz hartuta, **Jon Gómez** (Radio Nervión) moderatzailea izan zen, eta **Diego Fernández Revuelta** (Curenergía), **Natalia Díez-Caballero** (Hirukide), **Íñigo Cortázar Estíbaliz** (Cáritas Bizkaia) eta **Miguel Ángel Bodegas** (Kontsumobide) adituek hartu zuten parte. Kontsumitzaileek eta enpresek nabarmendu zuten gizarte bonuaren eskaerak izapidetzeko erabiltzen den tresnak mugak dituela, errentaren irizpidea egokitu eta neurri osagarriak sustatu beharra da-

goela (hala nola, energia eraginkortasuna eta birgaitzea). Halaber, positiboki baloratu ziren gatazkak konpontzeko mekanismoak eta familia zaurgarriei hornidura moztea prebenitzeko udalekin egindako hitzarmenak.

Jardunaldia hemen ikus daiteke online:

<https://youtube.com/live/TEks9hYlbS4?feature=share>

*Análisi Ekonomikoa
Saila (ANEKO)*

Ekonomia arloko IX. jardunaldiak, enpresa eta generoa



Gizarte jasangarriak eta ekitatiboak eraikitzeko ezinbesteko baldintza da zaintzak azterketaren erdigunean kokatzea.

Joan den **martxoaren 17an**, Ekonomia, Enpresa eta Generoari buruzko IX. Jardunaldiak egin ziren, «**Ekonomia birtentsatzen: zainketen rol nagusia**» lelopean. Edizio horretan, espezialistak, ikertzaileak eta gizarte eragileak bildu ziren, zainketei buruz kritikoki hausnartzeko, sistema ekonomikoaren egitura ardatz gisa. Ekitaldia Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Areto Nagusian izan zen (Sarriko), eta publiko orokorrak modu birtualean bertaratze-ko aukera izan zuen.

Ekitaldiaren hasieran, **Itziar Villafañez Pérezek**, **Euskal Herriko Unibertsitateko Enpresa Zuzenbidea eta Zuzenbide Zibila Saileko** irakasle eta ikertzaileak hartu zuen hitza. Gainera, bera izan zen jardunaldien antolatzaileetako bat eta aurkezlea, Jardunaldietan parte hartu zuten irakasleak **Irati Basoredo Otzerinjauregi**, **Simona Sobotovicova** eta **Amaia García Azpuru** izan ziren (azken hori Ekonomia Aplikatua Sailekoa). Hasierako hitzetan, Villafañez irakasleak azpimarratu zuen premiazkoa dela zainketak analisi ekonomikoaren erdigunean jartzea, edozein gizarte jasangarriren elementu egituratzaile gisa.

Inaugurazio hitzaldia **Jon Barrutia Güenagak**, Fakultateko dekanok, eta

Margaret Louise Bullenek, EHUko Berdintasunerako zuzendariak, eman zuten. Biak bat etorri ziren zainketen gaiari ikuspegi integral, instituzional eta kolektibo batetik heldu behar zitzaiola esatean. Unibertsitateak pentsamendu kritikorako eta gizarte konpromisorako espazio gisa duen zeregina nabarmendu zuten biek.

Amaia Perez Orozco, Colectivo XXX-ko kidea eta Ekonomia Feministaren esparruan erreferentea, izan zen hitzaldien tartea ireki zuena. Begirada zoli eta konprometituaz, egungo sistema sozioekonomikoaren zutabeak zalan-tzan jarri zituen, zaintza lanei dagokien ez emakumeengan (batez ere migra-tzaileengan eta prekarietate egoeran daudenengan) eragiten duten egitura-razko desberdintasunak salatuz. Eredua bizitzaren iraunkortasuna lehenesten duen logika publiko-komunitaria bi-dean eraldaketa proposatu zuen.

Jarraian, eta esparru juridikotik, **Samara de las Heras Aguilera**k, **Fem luseko** aholkulari juridikoak eta emakumeen eskubideetan eta Berdintasun politike-tan adituak, Zuzenbideak desberdinta-sun horien errepikatzaile gisa duen ze-regina kritikatu zuen. Giza Eskubideen, Generoaren eta Interseksionalitatearen printzipioetan oinarritutako arau eral-daketaren alde agertu zen.

Maitelan kooperatibako **María Elisa Peredo Quiroz**ek itxi zuen jardunaldia, eta zainketen kudeaketari buruzko es-perimentzia zehatza partekatu zuen. Bere hitzaldian, lan baldintzak duintzean eta zerbitzuaren kalitatea hobetzean jarri zuen arreta, eta, aldi berean, erakunde publikoen aldetik inplikazio irmoagoa eskatu zuen.

Bederatzigarren edizio honek izandako arrakastak Jardunaldiak diziplina arteko eztabaidarako eta genero ikuspegitik hausnarketa kritikoa egiteko erreferen-tzia gune gisa finkatu ditu. Hurrengo edizioari begira (hamargarren urteurre-na ospatuko du), antolakuntzak interesa duten pertsona guztiei (esparru akade-mikokoei, profesionalakoei edo gizarte mailakoei) luzatu die gonbita Ekonomia, Ekitatea eta Justizia Soziala interpela-tzen duten interes komuneko gaiak jo-rratzen jarraitzeko konpromisoarekin.

Irati Basoredo

VII. jardunaldiak: etxebizitzak, merkataritza lokalak eta frankizia kontratuak

Jardunaldia aukera berri bat izan zen gaiaren inguruko lege eta jurisprudentzia arloko beritasunei buruz hausnartzeko.



2025eko abenduaren 10ean, Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Gradu Aretoa (Sarriko) profesionalen eta ikasleen arteko topagunea izan zen **Etxebizitzei, Merkataritza Lokalei eta Frankizia Kontratuei buruzko Zazpigarren Jardunaldietan**.

Bizkaiko Hiri Ganberarekin lankidetzan, etxebizitzaren eta merkataritza lokalen errentamenduei, eta jabekideen komunitateen funtzionamenduari (LPH) buruzko gako berrienak partekatu zituen EHUK. Oraingoan, beritasun nagusia frankizia kontratuekin lotuta iritsi zen.

Hitzaldien funtsezko puntuak:

- Etxebizitzaren 12/2023 Legea:

José Miguel Alonso Sanz jaunak, Bizkaiko Hiri Ganberako letraduak, errentatzailea edukitzea handia deanean, etxebizitzaren errentamenduetan epe handiagoa egoten dela adierazi zuen, eta tentsio eremu izendatutakoetatik eratorritako mugak aztertu zituen. Horrez gain, aipatu zuen etxebizitza erabiltzeko alokairu kontratuetan orain arte jasotzen ez zen bezala, gaur egun errentaren berrikuspene lehiakortasuna

bermatzeko indizeari lotzen zaiola, eta indize hori kontsumo prezioen indizea baino txikiagoa dela.

- Negozio Lokalen errentamenduak

Josu Zulueta San Nicolás jaunak, Bizkaiko Hiri Ganberako letraduak, etxebizitza ez den erabilerarako, hau da, negozio lokaletarako, errentamenduetarako aurreikusten den negoziatzio tarte zabala azpimarratu zuen. Hala ere, hori ez da merkataritza guneetako alokairuetan gertatzen den zerbait, askotan negoziatzeko zailak diren baldintza oso zorrotzak aurkitzen baititugu. Hain zuzen ere, etorkizuneko ekintzaileei zuzenduta emandako gomendioetako bat aurretiazko suntsiarazpen klausula gehitzearekin lotuta zegoen.

- JHL: Jabekideen erkidegoen funtzionamendua

Miguel Alonso Beitia jaunak, Bizkaiko Hiri Ganberako letraduak, jabekideen elkargoek adostutako hitzarmenen garrantzia landu zuen. Jabetza Horizontalaren Legeak xedatutakoa bete eta modu formalean jaso behar dira balio osoa izan dezaten. Era berean, komunitatearen estatutuen harira, gogo-

rarazi zuen jabe guztiek ez dutela zertan ordaindu jabekideen batzarrean erabakitzen den guztian.

- Frankizia Kontratuak

Iker Zeballos Maudó irakasleak, ICA-BIZKAIAko letraduak, frankizia kontratuak (gero eta presentean dago merkatuan) aztertu zituen. Zehazki, legearen ondoriozko lege mailako betebeharrak betetzearen garrantzia azpimarratu zuen, bai eta alderdien artean beharrezko oreka mantentzearena ere, frankizia sistemaren arrakasta ziurtatzeko. Azkenik, frankizia emaileak eman beharreko informazio argi eta osoari dagokionez bete beharreko gardentasuna nabarmendu zuen.

Iker Zeballos



Ekonomia eta Enpresa arloko doktoregoen XI. jardunaldiak

Urriaren 30ean eta 31n, Ekonomia eta Enpresa Doktoregoen XI. Jardunaldiak egin ziren Sarriko, Fakultateko doktoregoen ikasleen topagunean. Aurten, bi mintegi eta mahai inguru bat egin dira eta honako hizlari hauek hartu zuten parte: **Jesús Barrena Martínezek** (Cádizeko Unibertsitateko Enpresen Antolaketa saileko irakaslea), **Juan Prieto Rodríguez** (Oviedoko Unibertsitateko Ekonomia saileko irakaslea), **José Luis Oreiro** (Brasiliako Unibertsitateko Ekonomia saileko irakaslea) eta **Fátima Pastor Ruiz** (EHUko ikerketa jarraipeneko teknikaria). Era berean, bi egunetan zehar lau saio antolatu ziren. Horietan, Fakultateko doktoregaiek beren lanak aurkeztu eta eztabaidatzeko aukera izan zuten irakasle gonbidatuekin eta jardunaldietara etorritako gainerakoekin.

Fakultateko egoitzako doktoregoen lau programak antolatzen dituzten prestakuntza jardueran sartuta daude jardunaldiak: (i) Enpresa Zuzendaritza, Jakintza eta Berrikuntza, (ii) Ekonomia: Ekonomia Analisisirako Tresnak, (iii) Finantzak eta Ekonomia Kuantitatiboa / Quantitative Finance and Economics eta (iv) Integrazio Ekonomikoa, EHUko Doktorego Eskolaren eta Ekonomia eta Enpresa Fakultatearen laguntzarekin.

Mari Paz Moral

Plangintza Energetikoari buruzko Joint Research Lab abian jartzea (JRL ePLAN)



JRL ePLAN plangintza energetikoaren arloan ikerkuntza aplikatua nazioarteko erreferente bihurtzeko helburuarekin sortu da.

Ekainaren 2an, **Plangintza Energetikoari buruzko Joint Research Lab (JRL ePLAN)** ekimenaren aurkezpen ofiziala egin zen, **Energia Ekonomiarako Espainiako Elkartearen (AEEE) XX. Biltzarraren** barruan. Ekimen horretan, **EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko** Análisi Ekonomikoa Saileko **BIRTE** talde finkatuaren energia ekonomiaren leerroan parte hartzen du, **Cristina Pizarro-Irizar** irakasleak ordezkatuta.

JRL ePLAN energia plangintzaren arloan bikaintasun zientifiko-teknologikoko gaitasunak eta ezagutza garatzeko lan ildo egonkorra ezartzeko helburuarekin sortu zen. Ekimena honako hauek sustatzen dute elkarrekin: **Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)**, **TECNALIA** eta **Basque Centre for Climate Change (BC3)**.

JRL ePLANek onura ekonomiko eta sozialak sortzea du helburu, enplegua sortzen eta produkzio sarea dinamizatzen lagunduko duen jakintza aplikagarriaren bidez, batez ere tokiko testuinguruan. Laborategiak nazioar-

teko erreferentzia izan nahi du ikerketa aplikatua, enpresa sektorearen beharretara bideratutako tresnak eta metodologiak garatuz. Gainera, oinarritzko ikerketaren eta industriaren arteko lotura, talentu espezializatuaren prestakuntza, erakundeen arteko mugikortasuna, gizarteari zientziaren hedapena eta eragile eta jardura eremu berrietara hedatzea sustatzen ditu.

Ekitaldiak **75 pertsona** bildu zituen, trantsizio jasangarrirako palanka gisa plangintza energetikoak gero eta gehiago pizten duen interesaren isla gisa. Honako hauek hartu zuten parte irekiera ekitaldian: **Igor Campillo** (Euskampusen zuzendaria), **María José Sanz** (Bc3ko zuzendari zientifikoa), **Jesús Valero** (TECNALIAko zuzendari nagusia) eta **Gotzone Barandika** (EHUko Transferentzia eta Nazioartekotze arloko errektoreordea). JRL ePLAN osatzen duten ikerketa taldeen aurkezpena honako hauek egin zuten: **Eneko Arrizabalaga** (TECNALIA), **Iñaki Arto** (BC3), **Cristina Pizarro-Irizar** (EHU, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea), **Gonzalo Diarce** (EHU, Bilboko Ingeniaritza Eskola) eta **Francisco Javier Asensio** (EHU, Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola).

Cristina Pizarro-Irizar

“Más Allá del Crecimiento” konferentzia diputatuen kongresuan



Sira Regoren, Gazteria eta Haurtzaroaren ministroaren, hitzaldia.

Topaketan, parlamentuko hainbat taldetako diputatuak izan ziren, eta krisi ekosozialaren larritasunari buruzko diagnostiko zientifikoa eta krisiari aurre egiteko hazkunde ekonomiko mugagabearen logika alde batera uzteko beharrari buruz esandakoa entzun ondoren, hitza hartu zuten.

Hazkunde ekonomikoaren mugei buruzko eztabaida ez da jada bigarren mailako kontua. Gero eta aditu gehiagok eskatzen dute berrikus dezatela zer ulertzen dugun aurrerabideaz, eta noraino iristeko prest gauden Barne Produktu Gordina (BPG) igotzen laguntzeko.

2025eko irailaren 26an, **Más Allá del Crecimiento** konferentzia egin zuten **diputatuen kongresuan**. Kongresuan egindako topaketa hori bultzatu zuten kolektibo sozial eta zientifikoaren artean,

Finantza Ekonomia II Saileko irakasle **Aitor Marcos** zegoen. Bere helburu nagusia eztabaida publiko irekitzea izan zen, BPGaren igoera beste guztiaren gainetik lehenesten jarraitzea zentzuzkoa eta segurua ote den ala ez erabakitzeko.

Eztabaida hori 2023an hasitako nazioarteko dinamika bati lotuta dago. Orduan, **Europako Parlamentuak** antzeko topaketa bat egin zuen, eta bertan, zenbait akademikok zalantzan jarri zuten **“hazkunde berdearen”** ideia, eta tekno-baikortasunaz ohartarazi zuten, hau da, teknologiak berak bakarrik krisi ekosoziala egitura aldaketarik behar izan gabe konpondu ahal izatearen konfiantzaz. Harrezkero, **“Beyond Growth”** hitzaldi batzuk Frantzia, Italia, Austria, Danimarka eta Norvegia egin dira, hausnarketa Europa mailara zabalduz.

Madriren egindako hitzorduan, erreferentziatzko espezialistak (besteak beste **Jason Hickel, Giorgos Kallis, Carmen Madorrán**, eta **Margarita Mediavilla**) maila goreneko erakundeetako ordezkariak bildu ziren. Besteak beste, **Olivier de Schutterrek**, ezberdintasun eta muturreko pobreziaarako NBERen

errelatore bereziak hartu zuen parte, eta inaugurazioan **Sira Rego** Gazteria eta Haurtzaro ministroak hartu zuen parte.

Topaketan, parlamentuko hainbat taldetako diputatuak izan ziren, eta krisi ekosozialaren larritasunari buruzko diagnostiko zientifikoa eta krisiari aurre egiteko hazkunde ekonomiko mugagabearen logika alde batera uzteko beharrari buruz esandakoa entzun ondoren, hitza hartu zuten. Nahiz eta, oro har, esku-hartzeak bat etorri ziren arazoaren deskribapenarekin, zuhurtzia eta pragmatismoa erabili zituzten irtenbide inperfektuak bilatzeko.

Hitzaldien zortzi orduak bideoan ikusgai daude [hemen](#). Gainera, [Olivier de Schutter](#)ren tribuna kontsulta daiteke El Mundon, eta hainbat komunikabide konferentziari buruz eskaintako esaldura: [El País](#), [20 minutos](#), [El Salto](#), [El Diario](#), [Climática](#), [El periódico](#), eta [EuropaPress](#).

Aitor Marcos

Ikasleen gosariak profesional eta enpresekin



Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Ekonomia eta Enpresa Fakultateak, Sarrikon (Bilbo) duen egoitzan, ikasleei zuzendutako bi topaketa egin berri ditu gosari formatuan, **Colegio Vasco de Economistas** elkargoarekin lankidetzan, errealitate profesionala hurbildu eta networkinga sustatzeko helburuarekin.

Lehen gosaria 2025eko azaroaren 27an izan zen, 09:00etatik 10:30era, eta hiru profesional garrantzitsuk parte hartu zuten: **Manu Gardeazabal**, auditora eta aholkularitza enpresa bateko bazkidea, **Alex Seoane**, marketinaren arloko aholkularitza enpresa bateko datuen arduraduna eta **Ignacio Arrondo**, zerbitzu enpresa bateko finantza arloko zuzendaria.

Saioan, hizlariak enpresa munduari, espezializazioaren garrantziari eta egungo merkatuan gehien eskatzen diren gaitasunei buruzko esperientziak, erronkak eta aholkuak partekatu zituzten, eta ikasle taldeei beren ibilbide profesionalak azaldu zizkieten.

Bigarren topaketa 2025eko abenduaren 11n egin zen, ordutegi berean, eta **Iberdrola**, **PKF Attest** eta **Laboral Kutxako** pertsonen arloko profesionalak bildu ziren. Talentuaren kudeaketa-rekin, antolakuntza kulturarekin eta lan merkatuan gehien eskatzen diren gaitasunekin lotutako gaiak landu zituzten, eta ekonomiaren eta enpresaren arloko hautaketa prozesuetarako alderdi giltzarriak azaldu zituzten.

Fakultateak ikasleei enpresa munduko joerak bertatik bertara ezagutzeko eta etorkizun profesionala aukeratzeko garaian giltzarri izan daitezkeen harremanak ezartzeko aukerak eskaintzeko hartu duen konpromisoaren parte dira gosari horiek. Profesionalen bizipenak eta enpresek eskaintzen dituzten aukerak elementu inspiratzaileak dira gure fakultateko ikasleentzat, eta erakundeen jardueraren ikuspegi hurbilagoa eta errealagoa ematen dute etorkizuneko gure egresatuentzat.

Julián Pando García

Bisita BIOLAN BM enpresara

Apirilean, Nazioarteko Marketineko eta Industria Marketineko ikasle eta irakasleek [BIOLAN MB](#) bisitatzeko aukera izan genuen. Enpresa hori erreferentea da teknologia biosentsorikoaren bidez soluzio analitikoak garatzen enologiaren, arrantzaren, esnekien, krustazeoen eta osasunaren sektoreetan, besteak beste.

Bisitak (euskaraz eta gaztelaniaz) **Asier Albizu** CEOaren ongietorriarekin hasi ziren, eta **Nestor Elizondo** Marketineko arduradunarekin batera, BIOLANen misioari eta jarduerari buruzko hitzaldi interesgarria eman ziguten. Berrikuntzaren eta nazioartekotzearen aldeko apustuarekin lotutako alderdietan zentratu ziren (negoiazioa, merkatuetara sartzeko moduak, nazioarteko ziurtagiriak...); izan ere, "Born Global" enpre-



sa da, 2009an sortu zena, eta kanpo merkatuek bere fakturazioaren ia % 90 osatzen dute. Horrek guztiak aukera eman zien ikasleei beste sektore batzuk bezain ezaguna ez den arren, beren garapen profesionalaren ikuspuntutik erakargarria den sektorea ezagutzeko.

Hasierako azalpenen ondoren, BIOLANeko Komunikazio Saileko **Naroa Aurtentxe** eta **Jone Magunacelayarekin** (gure Fakultateko ikasle ohia) batera, instalazioetan zehar bisita egin genuen. Hala, enpresaren prozesuak ikusi ahal izan genituen: biosentsoreen

ikerketa eta garapenetik hasi, eta haien produkzio eta aplikazioraino, esnekien sektorean, adibidez.

Oso esperientzia aberasgarria izan zen, bai ikasleentzat, bai irakasleentzat, eta, horri esker, enpresa berritzaile eta global baten errealitatearekin lotu ahal izan genituen ikasgelako edukia.

Eskerrik asko, BIOLAN!

*Covadonga Aldamiz-Echevarría,
Amaia Bañales eta Susana Tejada*



Marketin eta Salmenta Masterrak eta Marketin Elkarteak salmenta estrategikoetako prestakuntza indartu dute enpresa arloko erreferenteekin

Marketin eta Salmentetako Masterrak, Marketin Elkartearekin lankidetzan, salmenten eta marketin estrategikoaren arloko prestakuntza jarduera bat egin zuen 2025eko martxoan, eta garrantzi berezia eman zien antolaketa eraginkortasunari, balio sorkuntzari eta marketinaren eta salmenten arteko beharrezko lerrokatzeari, enpresa lehiakortasunaren funtsezko palanka gisa.

Vicente Gutiérrezrek, **Grupo Bentas** taldeko CEOak, emandako zenbait prestakuntza saiok eta **Sonia García Alvelok**, **Fanox** enpresako zuzendari komertzialak, emandako hitzaldi batek osatu zuten jarduera. Enpresa industrial horrek ibilbide sendoa du nazioartean, eta Marketing PesMes 2025 sarien VII. edizioan Nazioarteko Marketin Saria jaso zuen.

Saioetan zehar, **Vicente Gutiérrezrek** salmenten zeregina ikuspegi strategikotik jorratu zuen, merkataritza prozesuak profesionalizatzearen, bezeroa balio proposamenaren erdigunean kokatzaren eta salmentak marketinarekin koordinatuta lantzearen garrantzia azpimarratuz.

Sonia García Alveloren hitzaldiari esker, Fanoxek nazioartekotutako enpresa gisa duen esperientzia bertatik bertara ezagutu ahal izan zen. Horrekin lotuta, merkatu globalean lehiatu ahal izateko, marketin eta salmenta estrategia funtsezko elementua dela nabarmendu zuten. Zuzendari komertzialak nazioarteko bezeroen kudeaketari, merkatuetara egokitzeari eta balio proposamen

argi eta koherentea edukitzearen garrantziari buruzko ezagutzak partekatu zituen. Horrez gain, marketineko eta salmentako taldeen arteko lankidetzaren estuaren garrantzia azpimarratu zuen.

Horrelako prestakuntza ekimenek aukera ematen dute ikasleak enpresa errealitatera hurbiltzeko, eduki teorikoen eta haien aplikazio praktikoaren arteko lotura errazteko, eta hausnarketa kritikoa sustatzeko marketin estrategikoak eta salmentek erakunde eraginkorragoak, lehiakorragoak eta balioa sortzera bideratuagoak eraikitzearen duten eginkizunari buruz.

Unai Tamayo Orbegozo

Marka propioa garatzea: Ideiatik mahaira



Ylenia Gómez Bernal, Estrella Martínez García eta Irene Aránega Romanillos

Azaroaren 21ean, ostiralean, 12:30ean, [Ekonomia eta Enpresa Fakultateko](#) (Sarriko egoitza) Areto Nagusiak "Desarrollo de una marca propia: De la idea a la mesa" izeneko konferentzia jaso zuen. Jarduera **Lucía Sáez Vegas** irakasleak, **Merkataritza zuzendaritza: sarrera** (Finantza Ekonomia II Saila) irakasgaia-
ren koordinatzaileak, antolatu zuen **Ylenia Gómez Bernalekin**, **AECOCeko** (Fabrikatzaile eta Banatzaileen Elkarte) Komunitate Akademikoko arduraduna-
rekin elkarlanean.

AECOCek 34.000 enpresa bazkide baino gehiago ditu, eta herrialdeko enpresa erakunde handienetako bat da, baita balio -kateko eragile guztiak (produktoreak, fabrikatzaileak, operadore logistikoak eta banatzaileak) biltzen dituen bakarra ere. Sektore anitzekoa da, eta era askotako esparruak biltzen ditu, hala nola kontsumo handia, HORECA, osasuna, burdindegia eta brikolajea eta kontsumo elektronikoa. Horri esker, erreferente bihurtu da Estatu mailan, kontsumitzaileari balioa ematera bideratu-

Marka propioa kalitatea, posizionamendua eta berrikuntza uztartzen dituen apustu estrategiko gisa finkatu da, balio bereiziko proposamen bat eraikitzeko, lehia abantaila sortzeko eta kontsumitzailearen beharrei eraginkortasunez erantzuteko, eta, hala, banaketa sektorearen lehiakortasuna indartzeko.

tako ezagutza eta sinergiak sortzeko.

AECOCeko kide diren enpresen artean **Alcampo SA** dago, elikagaien banaketan izen handia duen enpresa eta Auchan Frantziako taldearen filiala. Enpresa horren ordezkari gisa, marka propioa garatzeko funtsezkoak diren bi arduradunek hartu zuten parte: **Estrella Martínez García**, Marka Propioko Packagingeko arduraduna, eta **Irene Aránega Romanillos**, Marka Propioren Garapeneko arduraduna.

Hitzaldian, bi hizlariak marka propio bat sortzeko eta kokatzeko prozesu integrala azaldu zuten, produktu bat "ideiatik mahaira" eramaten duten fase bakoitza azalduz. Besteak beste, gai hauek landu zituzten: produktuaren hasierako kontzeptua, balio bereizgarriaren definizioa, taldearen rola, hornitzaileak identifikatzeko, ebaluatzeko, negoziatzeko eta hautatzeko prozesuak, eta homologazio prozedurak eta kalitate arloko eskakizunak. Funtsezko alderdietan ere sakondu zuten, hala nola kontsumi-

tzaileen dastatzeetan, fitxa teknikoaren prestaketan, packagingaren diseinuan eta 360º-ko komunikazio estrategietan.

Hizlariak ikuspegi estrategikoa eta praktikoa eskaini zuten, ontziaren diseinua-
ren garrantzia, markaren koherentzia, berrikuntza eta kontsumitzailearen beharretara egokitzeko gaitasuna nabarmenduz. Azalpen haiei esker, ikasleek ulertu ahal izan zuten marka propioa garatzeak zer konplexutasun duen eta zer zeregin erabakigarria duen banaketa sektorearen lehiakortasunean.

Ekitaldian 150 ikaslek baino gehiagok hartu zuten parte, eta sektoreko profesionalekin zuzenean jarduteko aukera izan zuten. Gainera, saioa streaming bidez eman zen, eta zuzeneko 50 ikustaldi baino gehiago lortu ziren, bai EHUren barruan, bai AECOCren streaming kanalaren bidez.

Konferentzia hurrengo estekan dago ikusgai: <https://youtu.be/nm9nGafYWk>

Jarduera honek indartu egiten du **EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultateak** lan ingurunearekin lotutako prestakuntza praktikoarekin duen konpromisoa, eta ikasleen, komunitate akademikoaren eta enpresa sarearen arteko lotura sustatzen du.

Lucía Sáez Vegas PhD

Bisita EITBra



Abenduaren 12an, **Marketin eta Administrazio eta Zuzendaritza gradu**tako 4. mailako ikasleek bisita akademikoa egin zuten EITBra, **Marketin Zuzendaritza** irakasgaiaren barruko prestakuntza jardura gidatu gisa. Bisitan zehar, **euskarazko albistegien SET**a ezagutzeko aukera izan zuen taldeak, baita **gaztelaniazko albistegien SET berria** ere.

Era berean, **EITBren logotipo korporatiboaren sorrera eta bilakaera** aztertutik zuten, eta **1982**an sortu zenetik izan duen garapena nabarmendu zen, **Txantxangorriaren** irudia identitate elementu gisa hartuta. **Ikurrinari** lotutako hasierako koloreetatik eta txoriaren irudikapen esplizitutik **gaur egungo ikurraren** konfiguraziora arteko trantsizioa aztertutik zuten.

Testuinguru horretan, **irratia**ren rol estrategikoa azpimarratu zen. Hain zuzen ere, **"i"** letra gorrixka irudikatuta dago, logotipoaren (**EiTB**) multzo tipografiko beltzean integratuta, taldearen identitate bisuala eraikitzeke funtsezko elementu gisa. Horrez gain, **Mikel Urmenetak garatutako birdiseinu garaiakidea** aurkeztu zuten, **arrautza eta txoriaren jatorria** bezalako kontzeptuak aipatuz.

Azkenik, nerabeei eta gazteei zuzendutako plataforma digital berriak aztertutik ziren. Horien artean, **Primeran** nabarmendu zuten (<https://primeran.eus/>), eta ikus-entzuleen segmentu horretarako interesgarrienak diren ikus-entzunezko edukiei eta kontsumo formatuei buruz hausnartu zuten.

Unai Tamayo Orbegozo

1970-1975eko XVI. Promozioaren bisita



Ekainaren 26an SARRIKOn izan ginen, **1970-1975eko XVI. promozioa izan garenak, Fakultatetik irten ginene-ko 50 urteurrena** ospatzen.

Tempus fugit, carpe diem, erromatarrek zioten moduan.

Jon Barrutia dekanook harrera egin zigun Areto Nagusian hitz goxoekin eta, bere hitzaldiaren ondoren, promozio-ko bi lankideak guztiok hunkitu gintuen hitz-aldia eskaini zuten.

Ondoren, **Arturo Rodríguez**ek, dekanoo ohi eta ikaskide izandakoak, instalazioetan zehar bisita gidatua egin zigun. Bisitan agerian geratu zen instalazioak hobetu egin direla eta **Brigida** (liburu-

zaina), **Simón** (bedela) edo **Pela** (dekanoa) ekarri genituen gogora, haien oroitzapen historikoekin.

Gure bizitzetan eta herri honen historian garrantzitsuak izan diren urteetako oroitzapenak izan ziren. **1970ean** hasi genituen ikasketak, **Burgosko Prozesuarekin**, eta **1975ean** amaitu genuen, **Francoren heriotzarekin**.

Bazkari atseginarekin amaitu zen saioa, **Pirriren** omenezko kantuekin, **Canito** ikaskidearen bertsoekin eta giro alai eta parte hartzailearekin.

Azkenik, eskerrak eman nahiko genizkioke **Maitaneri** Fakultateko egonaldia erraztu zigulako.

Denok gure SARRIKO maitearekin lotutako oso oroitzapen onak ditugu!

1970-1975eko Promozioa



Leire San José Ruiz de Aguirre, Ekonomistak 2025 saria: “Ezina ekinez egina”

Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) **katedraduna**, nazioarteko ehun argitalpen eta aitortza baino gehiago dituen. **ECRI (Ethics in Finance & Social Value)** ikerketa taldea zuzentzen du eta **Laboral Kutxako Kontseilu Errektoreko kidea** da. Nazioarteko proiektio handia ere badu: Visiting Research Fellow izan da Huddersfield Business Schoolen, Chicagoko Loyola Unibertsitatean eta Darden Business Schoolen.

Ekonomistak 2025 Sariak bere ibilbide akademiko bikaina aitortzeaz gain, ekonomia bidezkoagoa, jasangarriagoa eta gizatiarragoa eraikitzeke egin duen ahalgina ere aitortzen du.

Leirek **finantza etika** pertsonalizatzen du, beharrezko oreka, batzuetan gizartearen ikuspegitik zentzugabea iruditu daitekeena.

tearen ikuspegitik zentzugabea iruditu daitekeena.

Leire San Joseri buruz hitz egitea finantzen munduko konpromisoaz, berrikuntzaz eta gizatasunaz hitz egitea da. Ekonomiak diru hutsetik haratago balioa sortu dezakeela eta sortu behar duela erakusten eman du bere ibilbidea. **Finantza etikoetan, kontabilitate sozialean eta inpaktu sozialaren neurketan** aitzindari izan da, eta bide berriak ireki ditu enpresek eta erakundeek jasangarritasuna eta erantzukizuna ardatz estrategikotzat har ditzaten.

Bere ikuspegiaren erdigunean inpaktu soziala dago, aldaketaren eragile gisa. Leireren ustez, benetako eraldaketa ekonomikoa ez da etekin ekonomikoetan bakarrik neurtzen, baizik eta erakundeek pertsonen bizitza hobetzeko eta gizarte egitura indartzeko duten gaitasunean.

ECRI taldeak balio soziala kuantifikatzeko eta erakundeek beren inguruneari egiten dioten benetako ekarpena kudeatzeko aukera ematen duten metodologiak bultzatzen ditu.

Bere ikuspegia Stakeholdersen teoriaraino oinarritzen da eta mundu mailako erreferenteekin kolaboratzen du (Edward Freeman adibidez), Euskadi etika eta ekonomiaren integrazioan erreferente gisa kokatzea lortuz.

Enpresa eta gizarte sarerako transferentziaren jarraitzaile amorratua da, bere lanak epe laburretik harago begiratzera eta **helburu jakina duen ekonomia-aren alde egitera** inspiratuko ditu ikasleak, akademia eta profesionalak.

Andrés Araujo y María Saiz

Daniela Filip, Fakultateko ikaslea, saritua izan zen Ekonomia Energetikorako Espainiako Elkartearen XX. Kongresuan

Daniela Filipek, **Finantzak eta Ekonomia Kuantitatiboak / Quantitative Finance and Economics** doktorego programako ikasleak eta **BIRTE**, Analisi Ekonomikoa Saileko (ANEKO) energia ekonomiaren talde kontsolidatuko kideak, **Red Eléctrica Sari Berezia** jaso zuen **Ekonomia Energetikorako Espainiako Elkartearen (AEEE) XX. Kongresuan**. **Antonio Gonzalez Urquijo** Redeiaren Ipar Eremuko ordezkariak eman zion saria.

Daniela doktorego tesia egiten ari da **Cristina Pizarro-Irizarren** zuzendaritzapean: *“Determinants of renewable energy deployment: Environmental, Economic, and Institutional Factors”*. Hain zuzen ere, saritutako lana, *“Empirical fundamentals of renewable energy consumption”*, tesi horren zati da.



Red Eléctrica Sarien deialdiaren helburua da ekonomia energetikoaren arloko ikertzaile gazteen parte hartzea sustatzea. Lana **AEEE**ren urteko kongresuan aurkeztu zuen. Kongresua **Euskal Herriko Unibertsitateak** eta **Basque Centre for Climate Change** antolatu zuten ekainaren 2tik 4ra bitarte **Bizkaia Aretoan**, *“Trantsizio energe-*

tikoa: industriarentzako erronkak eta aukerak” izenburupean.

Zorionak!

Cristina Pizarro-Irizar

EHUko Ekonomiako eta Enpresa Fakultatea harro dago: haien heroismoa dela eta saritutako ikasleak



Ez ditugu kalifikazioak eta enpresa handietako postuak bakarrik hizpide. Bartzuetan, pertsonen balioa eta gizatasuna dira azpimarragarrienak. **Alberto González Chueca, Jaime Hormaechea Aldamiz-Echevarría, Rafael Ramos Urrutia, Pablo Ruiz Omeñaca eta Eduardo Medina Urrutia** Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Ekonomia eta Enpresa Fakultateko ikasleen kasua aipatu nahi dugu oraingoan; izan ere, **Jon Ansotegui Gómez** lagunarekin batera, **Larrialdietako eta Babes Zibileko Merezimenduaren Domina** jaso zuten ekintza heroiko bat zela eta.

2024ko ekainaren 13an, ontzi bateko tripulataile gazte horiek arrantza egitetik bueltan zirela, itsasgoraren ondorioz iritsi ezineko harkaitzen eremu batean harapatuta zegoen gizon bat ikusi zuten. Zalantza izpirik gabe, ingurura hurbildu, erreskatatu eta onik atera zuten, ondoren larrialdi zerbitzuei entregatuz. Erres-

katatutako pertsona itotzeko edo hipotermia jasateko arrisku larrian zegoen.

Taldeak ez zuen atsedenik hartu ondorengo egunetan gizonaren osasuna erabat egonkortuta zegoela ziurtatu arte. Ekintza altruista eta ausart hari esker, 2025eko otsailaren 8an, Arkautiko auditorioan, Larrialdietako Merezimenduaren domina berdea jaso zuten.

Ekitaldian zehar, sarituen gurasoek ezin zuten euren harrotasuna ezkutatu, haien seme-alabek erakutsitako balioak eta elkartasuna zirela eta. Ekintza heroiko horrek agerian uzten du "Z belaunaldia" deiturikoaren aurpegi ez hain eza-gun baina oso baliotsua: enpatiarekiko, erantzukizunarekiko eta elkartasunarekiko konpromisoa. Sarritan jokabide negatiboak bakarrik nabarmentzen diren mundu honetan, ikasle gazte horien gertakaria ausardiaren eta gizatasunaren inspirazio iturri bilakatu da.

EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultatea osatzen dugunok oso harro gaude Jaime, Rafael, Pablo, Eduardo eta Alberto bezalako ikasleak ditugulako. Haien jardunak bizitza bat salbatzeaz gain, gure unibertsitate komunitatean eta gizarte osoan islatuta ikusi nahi ditugun balioak erakutsi zizkion munduari.

Javier Corral-Lage

Ekonomia eta Enpresa Fakultateak (Sarriko) BIKAIN ziurtagiria jaso du

Ekonomia eta Enpresa Fakultateak (Sarriko) euskararekiko konpromisoa indartu du BIKAIN ziurtagiria eskuratuta.



Ekonomia eta Enpresa Fakultateak (Sarriko) BIKAIN ziurtagiria jaso du aurtan. Ziurtagiri horrek esparru sozioekonomikoan euskararen presentziaren, erabileraren eta kudeaketaren normalizazio maila egiaztatzen eta kudeatzen du. Lorpena Fakultate osoaren konpromisoari eta **Unai Tamayo** Euskara dekanordeak, **Ainhize Gilsanz**, **Itsaso Lopetegi** eta **Amagoia Sagastarekin** batera, burututako koordinazio eta kudeaketa lanari esker lortu da.

Bikain Ziurtagiria emateko ekitaldia **2025eko abenduaren 16an** egin zen **Gasteizko Europa Jauregian**. Erakunde publiko eta pribatuek euskararen erabileran, kudeaketan eta sustapenean egindako lana aitortzea izan zen ekitaldiaren helburua. Bertaratutakoen artean, besteak beste, **Aitor Aldasoro** Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea izan zen, eta euskararen normalizazioan aurrera egiteko erakunde publiko eta pribatuen konpromisoa ezinbestekoa dela azpimarratu zuen.

Edizio horretan, **75 erakundek** jaso zuten aintzatespenen bat: 26k goi mailako ziurtagiria lortu zuten, 11k erdi mailakoa, 9k oinarritzko mailakoa eta 29k Harrobi



diploma. Euskararen presentzia eta kudeaketa ebaluatzeko, egiaztatzeko eta aitortzeko sistema arautzen duen dekretua 2023ko ekainean onartu zenetik egin den hirugarren ekitaldia izan zen. Dekretu hark Bikain ziurtagiriaren aurreko araudia ordeztu zuen, eta aitortza sistema zabaldu, Harrobi diplomak ere sartuz, euskararen normalizazioan lehen urratsak egiten ari diren erakundeak aintzatesteko.

Ekonomia eta Enpresa Fakultateak erdi-mailako BIKAIN ziurtagiria lortu du, egindako lanari eta euskara sustatzeko bere gain hartutako konpromisoari esker. Egindako bidea agerian utzi eta etorkizunean ildo horretan lanean jarraitzeko borondatea indartzen duen aitortza da.

Halaber, **Bizkaiko Campuseko errektoreorde Estitxu Garai** eta **Farmazia eta Letren Fakultateetako, Bilboko**

Ingeniaritza Eskolako eta Arkitektureko Goi Eskola Teknikoko ordezkariak ere izan ziren ekitaldian. Haiek ere ziurtagiriak jaso zituzten, eta agerian utzi zuten **Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU)** euskararen normalizazioarekin eta sustapenarekin duen konpromiso partekatua.

Amagoia Sagasta Elorza

SARRIKO

Ekonomia eta Enpresa Fakultatea Facultad de Economía y Empresa



EHU

Euskal Herriko Unibertsitatea
Universidad del País Vasco

NAZIOARTEKO
BIKAINITASUN
CAMPUSA

CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL